# IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA
# *ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN*

Irurtzunen, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren 7an, arratsaldeko 19:30ak direnean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Irurtzungo Udaleko Udalbatza bildu da, ohiko osoko bilkura egiteko, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Aitor Larraza Carrera jauna alkate - lehendakaria buru dela, eta bertan direla ondoren aipatzen diren zinegotzi hauek:

*En Irurtzun, siendo las 19:30 horas del día 7 de marzo de dos mil veintitrés se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión ordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Aitor Larraza Carrera, con la asistencia de los concejales y las concejalas de la Corporación que se enumeran a continuación:*

| | |
|---|---|
| Agurtzane Garijo Peralta andrea (EH Bildu). | *Doña Agurtzane Garijo Peralta (EH Bildu).* |
| Ana Balda San Juan andrea (EH Bildu). | *Doña Ana Balda San Juan (EH Bildu).* |
| Ana Santander Lizaso andrea (EH Bildu). | *Doña Ana Santander Lizaso (EH Bildu).* |
| Antonio Ollakarizketa Elizondo jauna (EH Bildu). | *Don Antonio Ollakarizketa Elizondo (EH Bildu).* |
| Joseba Royo García jauna (EH Bildu). | *Don Joseba Royo García (EH Bildu).* |
| Naiara Gartzia Royo andrea (EH Bildu). | *Doña Naiara Gartzia Royo (EH Bildu).* |
| Domingo Goñi Sarasola jauna (Navarra Suma). | *Don Domingo Goñi Sarasola (Navarra Suma).* |
| Enrique Tenorio Ruiz jauna (Navarra Suma). | *Don Enrique Tenorio Ruiz (Navarra Suma).* |
| Luis Enrique de la Calle Moreno jauna (Navarra Suma). | *Don Luis Enrique de la Calle Moreno (Navarra Suma).* |

Ezin etorria adierazi du Eduardo Murugarren Frances jaunak (EH Bildu).

*Excusa su asistencia Don Eduardo Murugarren France (EH Bildu).*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.*

Saioari 19’32ean eman zaio hasiera.

*Se da inicio a la sesión siendo las 19’32 horas.*

**1.- 2022ko abenduaren 22an ospatutako Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

2022ko abenduaren 22ko osoko bilkuraren aktari buruzko eztabaidan hitzartzerik izan gabe bozkatu da, eta aho batez onartu da.

***1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 22 de diciembre de 2022.***

*Se procede a someter a debate y votación el acta de la sesión plenaria del día 22 de diciembre de 2022, que sin toma de palabras queda aprobada por unanimidad.*

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2022/309tik – 2023/53 ebazpenera.**

Idazkariak alkatearen ebazpenak irakurri ditu, 2022/309-etik 2023/53 arte, oraingoan ezin izan baita zerrenda deialdiarekin eta bilkuraren gainerako dokumentazioarekin batera bidali. Amaitzean, Navarra Sumako zinegotziei eman die zerrenda.

Hitz egiteko txanda ireki da, baina, hitzik hartu gabe, osoko bilkura jakitun geratu da, alkatetzaren 2022/309 ebazpenetik eta 2023/53 ebazpenera.

***2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 309/2022 hasta la 53/2023.***

*La Secretaria procede a dar lectura a las resoluciones de alcaldía, desde la 309/2022, hasta la 53/2023, dado que esta vez no se ha podido enviar la relación junto a la convocatoria y el resto de documentación de la sesión. Al finalizar, ha hecho entrega de la relación a los ediles de Navarra Suma.*

*Se abre el turno de palabras, pero, sin que haya toma de palabras, se da el Pleno por enterado de las resoluciones de alcaldía 309/2022 a la 53/2023.*

**3.- 2023ko aurrekontuaren eta Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren onespena, hala badagokio.**

Alkateak gaia sartu du, eta gogorarazi du Kontu-hartzailetzaren txostena Batzordera bidali zela, eta ondorioztatu du aurrekontua bat datorrela legezkotasunarekin. Jarraian, 2023ko ekitaldirako aurrekontuaren ildo nagusiak azpimarratu ditu, lehenik eta behin 3.105.863 euroko aurrekontua dela adieraziz.

Inbertsioen proposamena TIPren ebazpenaren mende dago, eta, beraz, aldaketa bat egon liteke. Hauek dira inbertsio nagusiak:

***3.- Aprobación inicial del presupuesto y de las Bases de Ejecución para el ejercicio 2023, si procede.***

*El Alcalde introduce el punto, recordando que a Comisión se llevó el informe de Intervención concluye que el presupuesto se ajusta a la legalidad. A continuación, pasa a recalcar las líneas principales del Presupuesto para el ejercicio 2023, indicando, en primer lugar, que se trata de un presupuesto de 3.105.863 euros.*

*La propuesta de inversiones está condicionada a la resolución del PIL, por lo que podría haber una modificación. Las principales inversiones son las*

- Igerilekuak birmoldatzea, lehenengo fasea: 609.866 euro.

- Musika Eskolaren inguratzailea eta oztopoak, Europako Next Generation funtsen dirulaguntza jaso delako.

- Herri-baratzeak.

- Aurrekontu parte-hartzaileak.

- Atakondoa ikastetxeko obrak.

- Hirigintza berroneratzeko proiektu bat.

Gizarte Ongizatean, 7.000 euro igo da Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen kuota, eta 62.000 eurora iritsi da.

- Larrialdietarako laguntzak: 7.500 euro.

- Iturraskarri programa: 7.500 euro.

- Kontratazioak, bai Iturraskarrin, bai errenta bermatuetarako diru-sarreretan: guztira, ia 120.000 euro.

- Garapen-bidean dauden herrialdeen proiektuak: 10.900 euro.

- Josefina Arregui Patronatuaren kuota: 6.700 euro.

- Kulturarteko diagnostikoaren barruan egingo diren ekintzak: 5.500 euro.

Langileen gastua %2 igoko litzateke eta inbertsioetan %25 inguruko igoera litzateke. Gainera, gogorarazi du aste honetan egingo dela egin gabe geratu zen urbanizazio-fasearen lizitazioa. Gizarte-ongizateari dagokionez, ehunekoa %5ean igo da, kulturari dagokionez, %3,4 eta gastu energetikoak, krisi energetikoaren ondorioz nahiko nabarmenak direnak %37,5an igo dira.

*siguientes:*

*- Remodelación de las piscinas, la primera fase: 609.866 euros.*

*- Envolvente y las barreras de la Escuela de Música, debido a que se ha recibido la subvención de los fondos europeos Next Generation.*

*- Huertos comunales.*

*- Presupuestos participativos.*

*- Obras en el colegio Atakondoa.*

*- Un proyecto de regeneración urbanística.*

*En Bienestar Social, se aumenta la cuota de para la Mancomunidad de Servicios Sociales en 7.000 euros, llegando a los 62.000.*

*- Ayudas de emergencia: 7.500 euros.*

*- Programa Iturraskarri: 7.500 euros.*

*- Contrataciones tanto en Iturraskarri como en el ingreso para rentas garantizadas: en total ,ascenderían a casi 120.000 euros.*

*- Proyectos de países en desarrollo: 10.900 euros.*

*- Cuota del Patronato Josefina Arregui: 6.700 euros.*

*- Acciones que se van a llevar a cabo dentro del diagnóstico intercultural: 5.500 euros.*

*El gasto en personal aumentaría un 2% y en inversiones se estaría entorno al 25% de aumento. Además, recuerda que la licitación de la fase de la urbanización que se quedó sin realizar se llevará a cabo esta semana. En bienestar social el porcentaje sube en un 5%, en cultura 3'4%, gastos energéticos, que son bastante importantes también a raíz de esta crisis energética suben un 37,5%.*

Bere talde politikoak uste du aurrekontu indartsuak direla, inbertsioan eta pertsonen zaintzan oso errotuta daudenak.

*Entiende su grupo político que son unos presupuestos potentes, con mucho arraigo en la inversión y en el cuidado de las personas.*

Gogoratu du, hitzen txanda ireki aurretik, exekuzio-oinarriak ere onartu behar direla.

*Recuerda, antes de ceder la palabra, que deben aprobarse, además, las bases de ejecución.*

Inork ez duenez erabili bere hitz-txanda, gaia bozkatu egin da. **Osoko Bilkurak, EH Bilduren hautetsien aldeko botoekin eta Nafarroa Batuko zinegotzien abstentzioarekin, erabaki du**:

*Se somete el asunto a votación sin que ninguna persona electa haya hecho uso de su turno de palabras, siendo que* ***el Pleno, con los votos a favor de los cargos electos de EH Bildu, y la abstención de los ediles de Navarra Suma, acuerda:***

LEHENENGOA.- 2023ko ekitaldirako aurrekontua betearazteko oinarriak onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar las Bases de Ejecución del Presupuesto para el ejercicio 2023.*

BIGARRENA.- Hasierako onarpena ematea 2022ko ekitaldirako aurrekontuari.

*SEGUNDO.- Aprobar inicialmente el Presupuesto para el ejercicio 2022.*

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki - oholean argitaratzea.

*TERCERO.- Dar publicidad a estos acuerdos en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal*

LAUGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espedientea 15 egun baliodunez erakutsiko da idazkaritzan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten; epe hori igarota erreklamaziorik aurkezten ez badute, behin betiko onartutzat joko da.

*CUARTO.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 276 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, el expediente se expondrá en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobado definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen reclamaciones.*

**4.- Hala badagokio, plantilla organikoa eta kontabilitate - egoera erregularizatzea, Kontuen Ganberaren ikuskapenaren ondorioz.**

***4.- Si procede, regularización de la plantilla orgánica y de la situación contable, a raíz de la inspección de la Cámara de Comptos.***

Alkateak azaldu du Comptos Ganberak egindako auditoretzaren ondorioz irregulartasun batzuk antzeman zirela Udaleko langile batzuei egindako ordainketetan, eta jasotzen ari zen soldata ez zetorrela bat plantilla organikoan ezarritakoarekin. Ondorioz, Udalak ikerketa - espedientea hasi zuen desorekak nondik zetozen eta horien irismena argitzeko. Hala, 10. ebazpenak (benetan 20023/11 dena, zenbaketan akatsa baitzegoen) zenbait txosten eskatzen zituen, zeintzuen artean kontu – hartzailetzarena bereziki garrantzitsua zen, eta, gainera, Kontuen Ganberarekin lankidetzan jarraitu zen.

*El Alcalde expone que, a raíz de la auditoría que realizó la Cámara de Comptos, se detectaron algunas irregularidades en los pagos a ciertas trabajadoras y trabajadores de del Ayuntamiento, siendo que no eran acordes con lo establecido en la plantilla orgánica. En consecuencia, el Ayuntamietno incoó expediente de investigación para esclarecer de dónde provenían los desajustes, así como el alcance de los mismos. Así, la Resolución número 10 (que realmente es la 11/2023, advertido error de numeración) solicitaba varios informes, principalmente a Intervención, y además se continuó colaborando con la Cámara de Comptos.*

Idazkaritzak eta Alkatetzak egindako lanari esker, agerian geratu zen Garbiketako Udal Zerbitzuko langileen kasuan desoreka 2012tik datorrela, Osoko Bilkurak enpresa pribatuan zituzten baldintza berberetan langileak subrogatzea erabaki zuenetik, alegia, eta, beraz, inoiz plantillan islatu ez den osagarri bat aplikatzen ari zitzaiela. Era berean, ondoren kontratatutako gainerako langileek lan - baldintza berak izan behar zituzten.

*Gracias a la labor realizada por Secretaría y por Alcaldía, se descubrió que en el caso del personal del Servicio Municipal de limpieza, el descuadre proviene desde 2012, desde que el Pleno acordó la subrogación de las trabajadoras con las mismas condiciones que venían ostentando en la empresa privada, por lo que debía aplicárseles un complemento que nunca ha sido reflejado en plantilla. Igualmente, el resto del personal contratado con posterioridad, debía tener las mismas condiciones laborales.*

Ondorioz, saio honetan proposatzen da, egoera erregularizatzeko, plantilla organikoan sartzea %17,71eko lanpostu - osagarria, hori baita jasotzen ari direna, gehi 2018tik aitortuta duten maila - osagarria.

*En consecuencia, en esta sesión se propone intruducir en plantilla orgánica el Complemento de Puesto de Trabajo del 17'71%, que es lo que vienen percibiendo, más el Complemento de Nivel que tienen reconocido desde 2018, para proceder a regularizar la situación.*

Bestalde, Kontu - hartzailetzak eta Idazkaritzak kobratutako osagarriei dagokienez, azaldu du 2019an lau urteko atzeraeraginarekin aitortu zitzaiela gradua bitarteko langileei, ordurarte ez baitzuten aitortua, baina Irurtzungo Udaleko administrazioko kontratudun langileek aurretik ere jasotzen zutela, eta lanpostu horien arteko diskordantzia hortik datorrela.

*Por otra parte, respecto a los complementos percibidos por Intervención y por Secretaría, explica que en 2019 le fue reconocido el grado al personal interino con retroactividad de cuatro años, pero que el personal contratado administrativo del Ayuntamiento de Irurtzun lo venía percibiendo con anterioridad, y que el desajuste en el caso de estos puestos proviene de ahí.*

Gainera, adierazi du Kontuen Ganberak ez duela normaltasunetik kanpo dagoen irregulartasunik ikusi, ez kontratazioetan, ez esleipenetan, ez eta Udalari eragiten dion beste ezein alderditan ere. Hori dela eta, azpimarratu du pertsona jakin bati eragiten dion gertaera zehatz baten aurrean gaudela, eta Udalak horren aurrean erantzukizunez jardun duela, hainbat espediente irekiz eta agintari eskudunei egoki edota beharrezko ikusi duena jakinaraziz.

*Además, comenta que la Cámara de Comptos no ha visto irregularidades que escapen a la normalidad ni en contrataciones, ni en licitaciones, ni en ningún otro aspecto que afecte al Ayuntamiento, por lo que recalca que nos encontramos ante un hecho concreto que afecta a una persona concreta, y que el Ayuntamiento ha actuado en consecuencia, abriendo varios expedientes y poniendo lo que ha considerado en conocimiento de las autoridades competentes.*

Enrique de la Calle jaunak galdetu du ea besterendutako txosten juridikoa loteslea den edo beste organo batzuen onarpenen bat itxaron behar den.

*Pregunta don Enrique de la Calle si el informe jurídico externalizado es vinculante o si hay que esperar algún tipo de aprobación de otros órganos.*

Alkateak idazkariari eman dio hitza, eta honek erantzun du ez dela txosten loteslea, eta eskatzea hobetsi dela, dagoen diskordantzia ikusita, erabaki batzuk hartu behar direlako, eta, horretarako, komenigarritzat jo da ikuspegi juridikoa kanpoko iritzi batekin eta, gainera, gaian adituak diren pertsonen iritziarekin indartzea. Zehaztu du, gainera, txosten horretan Udal Garbiketa Zerbitzuko langileen osagarrien gaia baino ez dela lantzen; izan ere, Idazkaritza, Kontuhartzailetza eta Gaztetxoko monitoreen lanpostuetan ez dago inolako dokumenturik kobrantza horiek inola ere justifikatzeko, eta, beraz, itzuli egin behar dira.

*El Alcalde cede la palabra a la Secretaria, quien responde que no es un informe vinculante, y que se ha solicitado porque, vista la discordancia existente, procede tomar una serie de decisiones, para lo que se ha estimado conveniente reforzar el punto de vista jurídico con una opinión externa y de personas expertas en la materia. Puntualiza, además, que se trata de un informe en el que únicamente se trata el asunto de los complementos del personal del Servicio Municipal de Limpieza, ya que en los puestos de Secretaría, Intervención y del monitorado de Gaztetxoko no hay ningún documento el que pueda justificar de ninguna manera esos cobros, por lo que procede su devolución.*

Gaia bozkatu da hitzartzerik izan gabe eta **Udalbatzak honako erabaki hauek hartu ditu bertaratutakoen aho batez:**

*Sometido el asunto a votación sin que haya toma de palabras,* ***la Corporación, por unanimidad de las personas presentes, adopta los siguientes acuerdos:***

LEHENENGOA.- Azken urteetako nominen berrikuspena onartzea, osagarrietan egon daitezkeen

*PRIMERO.- Aprobar la revisión de las nóminas de los últimos años, para proceder a regularizar los desajustes que pudiera haber respecto a*

desorekak erregularizatzeko.

*complementos.*

BIGARRENA.- Akordio hau Kontuen Ganberari helaraztea.

*SEGUNDO.- Dar traslado de este acuerdo a la Cámara de Comptos.*

HIRUGARRENA.- Akordio hau Udal Kontuhartzailetzari helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*TERCERO.- Dar traslado de este acuerdo a la Intervención Municipal, para su conocimiento y efectos.*

**5.- 2023ko plantilla organikoaren aldaketa, hala badagokio.**

***5.- Modificación de la Plantilla Orgánica del año 2023, si procede.***

Alkateak adierazi du, arestian aipatutakoa dela eta, plantilla organikoan %17,71eko lanpostu - osagarria sartzea proposatzen dela. Hori da gaur egun langile gehienek jasotzen dutena, langile batzuek izan ezik, %22 inguru jasotzen baitute (ez da ezaguna arrazoia); aurrekoaz gain, arduradunaren kasuan, %14,56 gehiago jasotzen du eginkizun horrengatik.

*El Alcalde indica que, por lo anteriormente comentado, se propone introducir en la plantilla orgánica un Complemento de Puesto de Trabajo del 17'71%, que es lo que a día de hoy vienen percibiendo la mayoría de las trabajadoras, salvo algunas que perciben aproximadamente el 22% (no se sabe la razón); en el caso de la Encargada, percibe, además, un 14'56% por esa función.*

Osagarri hori azken urteetako plantilletan aitortuta duten mailako osagarriari gehituko litzaioke.

*Este complemento se añadiría al Complemento de Nivel que ya tienen reconocido en las plantillas de los últimos años.*

%17,71 hori proposatzen da, esan bezala, gehienek jasotzen dutena delako, eta, lan - kontratudun langileak dira, eta, beraz, eskubideak eskura ditzakete; baina, gainera, inguruko herrietako antzeko lanpostuekin alderatzen duen azterlan batean ondorioztatutakoaren arabera, hori da jasotzen ari dena.

*La razón por la que se propone el 17'71% es, como se ha dicho, porque es lo que vienen percibiendo la mayoría, que son trabajadoras laborales, por lo que pueden adquirir derechos pero, además, porque es lo que en un estudio comparativo con los puestos de trabajo similares en la zona es lo que vienen a estar percibiendo.*

Gaineratu duenez, gerta liteke osagarri hori errekurritzea, eta, kasu horretan, Udalak lanpostuen balorazioa egiteko prest egongo litzateke, baina gaur egun uste da ez dela beharrezkoa, eta lehentasunezkoa dela egoera erregularizatzea eta kaltetutako langileak lasaitzea.

*Añade, además, que podría suceder que este Complemento sea recurrido, y que en ese caso el Ayuntamiento procedería a realizar una valoración de puestos, pero que a día de hoy se entiende que no resulta necesaria, y que es prioritario regularizar la situación y tranquilizar a las trabajadoras afectadas.*

Enrique de la Calle jaunak galdetu du ea puntu hau aurrekoarekin lotuta dagoen, eta baietz erantzun zaio, azken hamaika urteetan, gutxienez, gertatzen ari den egoera erregularizatzeko xedea duela.

*Pregunta don Enrique de la Calle si este punto está ligado al anterior, a lo que se le responde que sí, que la intención es regularizar la situación que se viene dando en los últimos, al menos, once años.*

Gaia bozkagai jarrita, **bertaratutako hautetsien aho batez erabaki da:**

*Sometido el asunto a votación, el Pleno,* ***por unanimidad de las presentes, se acuerda:***

LEHENENGOA.- 2023. urteko plantilla organikoaren aldaketa hasiera batez onestea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación de la Plantilla Orgánica para el año 2023.*

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, onetsitako plantilla idazkaritzan egongo da aztergai 15 egun baliodunetan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten. Epe hori igaro eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 235 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, la plantilla aprobada se expondrá en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobada definitivamente, si transcurrido dicho plazo, no se formulasen reclamaciones.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, Iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento.*

**6.- 2023ko lanpostuen zerrendaren aldaketaren onespena, hala badagokio.**

***6.- Aprobación de la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo del año 2023, si procede.***

Idazkariak adierazi du Esther Etxeberria Sastre andrearen antzinatasunean akatsa dagoelako proposatzen dela honako aldaketa.

*La Secretaria indica que se debe al error en la antigüedad de la trabajadora Doña Esther Etxeberria Sastre.*

Hitzik hartu ez denez, gaia zuzenean bozkatzeari ekin zaio, eta **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Al no haber tomas de palabra, se somete directamente el asunto a votación y* ***el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- 2023. urteko Lanpostuen Zerrendaren

*PRIMERO.- Aprobar la modificación de la Relación de*

aldaketa onestea.

*Puestos de Trabajo para el año 2023.*

BIGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, Iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento.*

**7.- Hala badagokio, S1-U3 eta U4 egikaritze - unitatea urbanizatzeko obrak kontratatzeko espedientea onartzea, bere lizitazioari ekiteko.**

***7.- Aprobación del expediente para la contratación de la obra de Urbanización de la unidad de ejecución S1-U3 y U4, para proceder a su licitación, si procede.***

Alkateak azaldu du osoko bilkurari dagokiola onartzea, kontratuaren zenbatekoa dela eta, organo eskuduna delako.

*El Alcalde explica que le corresponde la aprobación al Pleno, ya que por razón de la cuantía del contrato es el órgano competente.*

Hitzik hartu ez denez, gaia zuzenean bozkagai jarri da, eta **Udalbatzak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:**

*Al no haber tomas de palabra, se somete directamente el asunto a votación y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- S1-U3 eta U4 egikaritze - unitatea urbanizatzeko obrak kontratatzeko espedientea onartzea, baita kontratua arautuko duten pleguak ere.

*PRIMERO.- Aprobar el expediente para la contratación de las obras de Urbanización de la unidad de ejecución S1-U3 y U4, así como los pliegos que han de regir el contrato.*

BIGARRENA.- Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, indarrean dagoen aurrekontuaren kargura.

*SEGUNDO.- Autorizar el gasto correspondiente que comporta el presente contrato, con cargo al vigente presupuesto.*

HIRUGARRENA.- Lizitazio publikoa iragartzea kontratatzailearen profilean eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

*TERCERO.- Anunciar la licitación pública en el Perfil del Contratante, y en el Portal de Contratación de Navarra.*

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea udal - arkitektoak, kontu - hartzaileak, idazkariak eta alkateak osatutako Kudeaketa Unitateari.

*CUARTO.- Dar traslado del presente acuerdo a la Unidad Gestora, conformada por el Arquitecto municipal, el Interventor, la Secretaria y el Alcalde.*

**8.- Hala badagokio, Irurtzungo Musika Eskolaren birgaitze energetikorako eta irisgarritasuna hobetzeko obra kontratatzeko espedientea**

***8.- Aprobación del expediente para la contratación de la obra para la rehabilitación energética y mejora de la accesibilidad de la Escuela de Música de***

**onartzea, bere lizitazioari ekiteko.**

Alkateak azaldu du, aurreko puntuan bezala, osoko bilkurari dagokiola onespena ematea, kontratuaren balioaren zenbatekoaren arabera organo eskuduna delako.

Hitzartzerik egon gabe, **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- Irurtzungo Musika Eskolaren birgaitze energetikorako eta irisgarritasuna hobetzeko obrak kontratatzeko espedientea onartzea, baita kontratua arautuko duten pleguak ere.

BIGARRENA.- Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, 2023ko aurrekontuaren kargura.

HIRUGARRENA.- Lizitazio publikoa iragartzea kontratatzailearen profilean eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea udal - arkitektoak, kontu - hartzaileak, idazkariak eta alkateak osatutako Kudeaketa Unitateari.

***Irurtzun, para proceder a su licitación, si procede.***

*Expone el Alcalde que, al igual que en el punto anterior, corresponde la aprobación al Pleno por ser el órgano competente por razón de la cuantía del valor del contrato.*

*Sometido el asunto a votación, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Aprobar el expediente para la contratación de las obras para la rehabilitación energética y mejora de la accesibilidad de la Escuela de Música de Irurtzun, así como los pliegos que han de regir el contrato.*

*SEGUNDO.- Autorizar el gasto correspondiente que comporta el presente contrato, con cargo al presupuesto de 2023.*

*TERCERO.- Anunciar la licitación pública en el Perfil del Contratante, y en el Portal de Contratación de Navarra.*

*CUARTO.- Dar traslado del presente acuerdo a la Unidad Gestora, conformada por el Arquitecto municipal, el Interventor, la Secretaria y el Alcalde.*

**9.- HLBGZren koefizienteak egokitzea 2023ko ordenantza fiskaletan, hala badagokio.**

Alkateak azaldu du HLBGZ kalkulatzeko koefizienteak aldatu egin direla, eta, beraz, Irurtzungo Udalak aurreko ekitaldian ezarritako tasak egokituak izan behar zirela. Ezartzeko modua izan da lege berriaren maximoaren %80 erabiltzea, eta gutxienekoetan lege berriak jasotzen duena mantentzea.

Hitzik hartu gabe, **Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:**

***9.- Adecuación de los coeficientes del IIVTNU en las ordenanzas fiscales para 2023, si procede.***

*El Alcalde explica que han variado los coeficientes para el cálculo del IIVTNU, por lo que los tipos establecidos por el Ayuntamiento de Irurtzun el ejercicio anterior debían ser adecuados. La manera de establecer ha sido utilizar el 80% del máximo de la nueva ley y en los mínimos mantener el que recoge la misma.*

*Sin haber toma de palabras, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluko gehienezko koefizienteak onartzea. Hauek izango dira:

| SORTZAPEN EPEA | |
|---|---|
| 0,23 | 20 urte edo gehiago |
| 0,23 | 19 urte |
| 0,06 | 18 urte |
| 0,06 | 17 urte |
| 0,06 | 16 urte |
| 0,06 | 15 urte |
| 0,06 | 14 urte |
| 0,07 | 13 urte |
| 0,08 | 12 urte |
| 0,12 | 11 urte |
| 0,18 | 10 urte |
| 0,23 | 9 urte |
| 0,35 | 8 urte |
| 0,39 | 7 urte |
| 0,34 | 6 urte |
| 0,28 | 5 urte |
| 0,22 | 4 urte |
| 0,16 | 3 urte |
| 0,18 | 2 urte |
| 0,16 | Urte 1 |
| 0,06 | Urte 1 baino gutxiago |

BIGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, behar den ondorioak izan ditzan.

*PRIMERO.- Aprobar los coeficientes máximos del artículo 175 de la Ley Foral 2/ 1995, de 10 de marzo, de las Haciendas Locales de Navarra, que serán los siguientes:*

| *PERÍODO DE GENERACIÓN* | |
|---|---|
| *0,23* | *Igual o superior a 20 años* |
| *0,23* | *19 años* |
| *0,06* | *18 años* |
| *0,06* | *17 años* |
| *0,06* | *16 años* |
| *0,06* | *15 años* |
| *0,06* | *14 años* |
| *0,07* | *13 años* |
| *0,08* | *12 años* |
| *0,12* | *11 años* |
| *0,18* | *10 años* |
| *0,23* | *9 años* |
| *0,35* | *8 años* |
| *0,39* | *7 años* |
| *0,34* | *6 años* |
| *0,28* | *5 años* |
| *0,22* | *4 años* |
| *0,16* | *3 años* |
| *0,18* | *2 años* |
| *0,16* | *1 año* |
| *0,06* | *Inferior a 1 año* |

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra a los efectos oportunos.*

**10.- Iruzurraren aurkako neurrien plana onartzea, hala badagokio.**

Alkateak esan du iruzurraren aurkako neurrien plana egitea eta onartzea dela Europako funtsak jasotzeko

***10.- Aprobación del Plan de Medidas Antifraude, si procede.***

*El Alcalde dice que la elaboración y aprobación de un Plan de Medias Antifraudes es una de las exigencias*

eskakizunetako bat.

*para la percepción de los fondos europeos.*

Ondoren, idazkariari eman dio hitza. Honek gogorarazi du, deialdia bidaltzean adierazi zen bezala, dokumentazio nagusia baino ez zela bidali, baina plan horrekin batera hainbat eranskin daudela, eta eranskin horietatik Irurtzungo Udalaren Adierazpen Instituzionala eta Etika eta Jokabide Kodea ere onartu behar direla, susperraldirako eta erresilientziarako mekanismoaren funtsak kudeatzeko. Azken dokumentu hau, Kode Etikoa, Europako funtsei oso zuzenduta dago, eta Planak eta Adierazpen Instituzionalak, berriz, udalaren ohiko funtzionamenduari onura eragiteko interesgarriak dira.

*A continuación, cede la palabra a la Secretaria. Esta recuerda que, tal y como se puso de manifiesto con el envío de la convocatoria, únicamente se envió la documentación principal, pero que dicho plan va acompañado de varios anexos, de los cuales la Declaración Institucional y el Código Ético y de Conducta del Ayuntamiento de Irurtzun para la gestión de los fondos del mecanismo para la recuperación y la resiliencia también se someten a la aprobación. Este último documento es muy dirigido a los fondos europeos, mientras que el Plan y la Declaración Institucional resultan interesantes para el funcionamiento ordinario de esta entidad.*

Jarraian, Adierazpen Instituzionala irakurri du.

*A continuación, procede a dar lectura de la Declaración Institucional.*

Hitzartzerik izan gabe, **Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:**

*Sin que haya toma de palabras, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Iruzurraren aurkako neurrien plana, Deklarazio Instituzionala eta Irurtzungo Udalaren Etika eta Jokabide Kodea, susperraldirako eta erresilientziarako mekanismoaren funtsak kudeatzeko, onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar el Plan de Medidas Antifraude, la Declaración Institucional y el Código Ético y de Conducta del Ayuntamiento de Irurtzun para la gestión de los fondos del mecanismo para la recuperación y la resiliencia.*

BIGARRENA.- Akordio hauek argitara ematea.

*SEGUNDO.- Dar publicidad a estos acuerdos.*

**11.- Migrazio Politika eta Justizia Departamentuaren eta NUFKren arteko lankidetza - hitzarmenari atxikitzea, bikote egonkorrak eratzeko eta, ondoren, Foru Erkidegoko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatzeko, hala badagokio.**

***11.- Adhesión al convenio de colaboración entre el Departamento de Políticas Migratorias y Justicia y la FNMC para facilitar la constitución de las parejas estables y su posterior inscripción en el Registro Único de Parejas Estables de la Comunidad Foral, si procede.***

Alkateak azaldu du Migrazio Politika eta Justizia Departamentuaren eta NUFKren arteko lankidetza -

*El Alcalde explica que se trata de adherirse a un convenio de colaboración entre el Departamento de*

hitzarmenari atxikitzea proposatzen dela, izapidetze administratiboa errazteko.

*Políticas Migratorias y Justicia y la FNMC para facilitar la tramitación adminsitrativa.*

Ez da hitzik hartu, beraz, zuzenean bozkatu da. **Udalbatzak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:**

*No hay toma de palabras, por lo que se pasa directamente a votación.* ***El Pleno, por unanimidad, ha adoptado el siguiente acuerdo:***

LEHENENGOA.- Migrazio Politika eta Justizia Sailaren eta Nafarroako Udalerrien Federazioaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenari atxikitzea, bikote egonkorrak eratzeko eta, ondoren, Foru Komunitateko Erregistro Bakarrean inskribatzeko.

*PRIMERO.- Adherirse al Convenio Marco de Colaboración entre el Departamento de Políticas Migratorias y Justicia y la Federación Navarra de Municipios para facilitar la constitución de las parejas estables y su posterior inscripción en el Registro Único de la Comunidad foral.*

BIGARRENA.- Erabaki hau Migrazio Politika eta Justizia Sailari (registro.parejas.estables@navarra.es) eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioari (fnmc@fnmc.es) helaraztea.

*SEGUNDO.- Dar traslado del presente Acuerdo al Departamento de Políticas Migratorias y Justicia (registro.parejas.estables@navarra.es) y a la Federación Navarra de Municipios y Concejos (fnmc@fnmc.es).*

**12.- Hala badagokio, EH Bilduren udal - taldeak proposatutako mozioaren onartzea: Torturari buruzkoa.**

***12.- Si procede, aprobación de la moción a propuesta del Grupo Municipal de EH Bildu: Tortura.***

Alkateak, EH Bildu udal - taldearen bozeramaile gisa, azaldu du torturatutako pertsonen sare bat sortu dela Nafarroan, 1979tik gaur arte Foru Komunitatean gertatu ahal izan diren tortura - kasuei buruz ikertzeko.

*El Alcalde, en su calidad de portavoz del grupo municipal EH Bildu, explica que se ha creado una red de personas torturadas en Navarra para investigar sobre los casos de tortura que se han podido dar en la Comunidad Foral desde 1979 hasta la actualidad.*

Hala, elkarteak torturatutako Nafarroako pertsonen errolda bat egin du. Errolda horretan, 1.000 tortura - kasu baino gehiago erregistratu dira, bi hildako (Mikel Zabalza eta Antonio Goñi Igoa), Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiako Estatua kondenatu du torturengatik, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak lau kondena ezarri dizkio Espainiako Estatuari tortura - salaketak ez ikertzeagatik, eta

*Así, la asociación ha elaborado un censo de personas navarras torturadas en el que ya se han registrado más de 1.000 casos de torturas, dos personas muertas (Mikel Zabalza y Antonio Goñi Igoa), una condena al Estado Español por parte del Tribunal de Derechos Humanos de Estrasburgo por torturas, cuatro condenas del Tribunal de Derechos Humanos de Estrasburgo al Estado Español por no investigar las denuncias de*

torturak Nafarroako 101 udalerriri eragin die , gutxienez.

*torturas y afectando la tortura al menos a 101 localidades navarras.*

Azken urteotan Nafarroan gertaerak aitortzeko eta bizikidetzarako baldintzak ezartzeko eman diren urratsak gehitu eta zerrendatu ditu, eta honako puntu hauei atxikitzea proposatu du:

*Añade y enumera los pasos que en los últimos años se han dado en Navarra en reconocimiento de los hechos y establecimiento de condiciones para la convivencia y propone la adhesión a los siguientes puntos:*

1.- Irurtzungo Udalak elkartasuna eta aitortza agertzen du torturaren eta tratu txarren biktima diren nafarrei, eta, bereziki, udalerri honetako hiru bizilagunei.

*1.- Manifiesta la solidaridad y reconocimiento a las personas navarras víctimas de la tortura y malos tratos y especialmente con las tres personas vecinas de este municipio.*

2.- Udalak bere konpromisoa adierazten du egiaren ezagutzan eta egon litezkeen kasuen erreparazioan laguntzeko.

*2.- El Ayuntamiento muestra su compromiso a contribuir en el conocimiento de la verdad y la reparación de los posibles casos que hubiese.*

3.- Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio tortura eta tratu txarren praktika saihesteko eta ezabatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ditzala, ez errepikatzeko mekanismoak ezarriz.

*3.- El Ayuntamiento insta al Gobierno de Navarra a realizar todas las actuaciones necesarias para prevenir y eliminar la práctica de la tortura y los malos tratos estableciendo mecanismos de no repetición.*

Inork hitzik hartu gabe, gaia bozkatu egin da eta **Osoko Bilkurako Udalbatzak, EH Bilduren hautetsien aldeko botoekin eta Navarra Sumaren zinegotzien kontrako botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:**

*Sin que haya toma de palabras, el asunto es sometido a votación y **el Pleno, con los votos a favor de los cargos electos de EH Bildu y los votos en contra de los concejales de Navarra Suma, adopta los siguientes acuerdos:***

LEHENENGOA.- Proposatutako mozioa onestea.

*PRIMERO.- Aprobar la moción propuesta.*

BIGARRENA.- Akordio hau Nafarroako Gobernuari, Herritarrekiko Harremanetarako Kontseilaritzari eta Bake eta Bizikidetza Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari helaraztea.

*SEGUNDO.- Dar traslado de este acuerdo al Gobierno de Navarra, a la Consejería de Relaciones Ciudadanas y la Dirección General del Departamento de Paz y Convivencia.*

HIRUGARRENA.- Akordio hau elkarte sustatzaileari jakinaraztea.

*TERCERO.- Notificar este acuerdo a la asociación promotora.*

**13.- Hala badagokio, EH Bilduren udal - taldeak**

***13.- Si procede, aprobación de la moción a***

**proposatutako mozioaren onartzea: Martxoaren 8ari buruzkoa.**

Alkateak, mozioa aurkeztu duen EH Bilduren Udal Taldeko bozeramaile gisa, mozioa kentzea proposatu du eta ez da gaia aztertu.

**14.- Erregu eta galderak.**

Ez dago.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 20:10ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

***propuesta del Grupo Municipal de EH Bildu: Sobre el 8 de marzo.***

*El Alcalde en su calidad de portavoz del Grupo Municipal de EH Bildu, quien ha presentado la moción, propone su retirada y no se trata el asunto.*

***14.- Ruegos y preguntas.***

*No hay.*

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 20:10 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Fecha: 2023.04.27 15:11:03 +02'00'

Alkatea / *El Alcalde*,
Aitor Larraza Carrera

44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Fecha: 2023.04.27 13:36:47 +02'00'

ZIURTATZEN DUT
Idazkaria / *La Secretaria*
Eguzkiñe Aiesa Andres